ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

1997 azaroa/noviembre/novembre
Nº 73 zenb.

# Eusko Ikaskuntzako Kongresua, elkarlanaren eragile

Ahalik eta gizarte-eragile gehienak erakartzen saiatu da Eusko Ikaskuntza 1918an Oñatin bere lehenbizko kongresua burutu zuenetik. Izan ere, ponentzien eta komunikazioen zientzia maila garaia lortzeaz gainera, ondorioak eta gomendioak emango dituen eztabaida foro bihurtu nahi izan dira gauregun biurtero antolatzen diren kongresuak, ohizko egitaraua burutu ondoren, lan eta ikerketen jarraipenaren bitartez, aztergaiarekin loturik dauden eragileen arteko ezagutza eta harremanak hobetzen lagunduz.

XIV. Kongresuari dagokionez, gaien aniztasunak berak ekarri du partaideen ugaritasuna. Arlo ezberdinekoak dira ere antolaketa lanetan aritu diren ordezkariak eta Eusko Ikaskuntzari bere babesa zuzendu dioten erakundeak.

Gutzi hauei emandako laguntzarengatik Elkartearen eskerrak luzatu nahi izan zien Juan Jose Goiriena de Gandarias Eusko Ikaskuntzako lehendakariak hilaren 4an Bilbon buruturiko aurkezpen orokorrean. Bertan, XIV. Kongresuko lehendakaria, azpiegitura teknikoko arduraduna eta moduloetako koordintzaileez gain, Francisco Javier Zuñiga EHU-ko Ikerketarako eta Nazioarteko Harremanetarako errektoreordeak esku hartu zuen ere. Aipatu beharra dago EHU-k kreditu bat emango diela Kongresura joandako ikasle guztiei. Politika arloko ordezkarien partaidetza ere eskertu zuen Goiriena de Gandariasek, Kongresua Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria mahaiburu izango den ekitaldi batekin hasiko baita eta egitarauan, besteak beste, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidenteak eta Esperanza Agirre Hezkuntza eta Kultura Ministeritzako buruak esku hartuko dute.



El Congreso *fue presentado en cada una de sus sedes. En la imagen, Orrantia, Aranburu, Gurrutxaga, Larrasket y Orihuela, en la Universidad de Navarra (foto Azanza).*

## *Las nuevas técnicas digitales al servicio de un gran reto organizativo*

El apoyo de la compañía Telefónica en la preparación del XIV Congreso ha permitido a Eusko Ikaskuntza afrontar el gran reto que suponía la organización de un programa tan complejo como el previsto para esta décimocuarta edición.

Desde un primer momento, se vio necesario que el potencial de las nuevas tecnologías fuera no sólo objeto de estudio teórico, sino también el instrumento práctico que hiciera factible el desarrollo de las sesiones.

### Un sistema complejo

Así, se optó por el sistema de multivideoconferencia, de tal forma que las ponencias pudieran seguirse, de forma interactiva, desde 6 ciudades diferentes, y que pudieran desarrollarse sesiones paralelas, sin merma de la recepción simultánea en las llamadas "salas pasivas". Consciente de la profunda transformación que la red telefónica ha experimentado en los últimos años, Eusko Ikaskuntza quiso que el programa fuera también un escaparate de la "Sociedad de la Información" en lo referente a la propia infraestructura tecnológica.

De esta forma, se han aplicado al Congreso las nuevas técnicas digitales que están revolucionando el concepto de lo que tradicionalmente se ha denominado telefonía.

### RDSI

Para el desarrollo del programa, Eusko Ikaskuntza cuenta con una red digital de servicios integrados (RDSI), lo que permite aunar las comunicaciones de voz, datos e imagen en una única interfaz de usuario, independientemente de la naturaleza de la información que se emita y del equipo terminal que la genere. Mediante la RDSI, se puede transmitir, a cualquier parte del mundo, voz, música, datos, planos, imágenes, ya que lo que ofrece es una digitalización completa del camino de las comunicaciones entre los abonados involucrados en una llamada. Actualmente, la RDSI coexiste con las redes convencionales de telefonía y datos, si bien se estima que,progresivamente, se convertirá en el único y universal sistema de telecomunicaciones. Algunas de sus aplicaciones específicas están ya en pleno uso en determinados sectores, atendiendo a necesidades de la más diversa naturaleza, como puede ser la transmisión de historiales clínicos o el telediagnóstico, la gestión de reservas en agencias de viajes, la utilización de autoservicios bancarios, la teleeducación, la venta por catálogo, etc.

Las nuevas formas de telecomunicación tendrán también otras aplicaciones durante el XIV Congreso de Eusko Ikaskuntza. Así, además de divulgarse en su soporte habitual, la hoja informativa "Asmoz ta Jakitez" estará a disposición de los congresistas en Internet. La dirección en la que puede consultarse es la que figura en el cuadro de esta misma página.

ASMOZ TA JAKITEZ INTERNET
http: //suse00.su.ehu.es
Telefónica

BBK Bilbao Bizkaia Kutxa · kutxa · Caja Vital · Vital Kutxa · CAJA PAMPLONA · CAN Caja de Ahorros de Navarra · Programa Interreg II (FEDER) · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Telefónica · Diputación Foral de Alava Arabako Foru Aldundia · Fundesco · Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia · Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · EITB Euskal Irrati Telebista




El programa

*fue presenta - do en Bilbao. En la imagen, Martínez de Alegría, Zuñiga, Gurrutxaga, Goiriena de Gandarias, Agirre, Agirregabiria y Larrasket (foto Solorzano).*

# Une nouvelle ligne du travail avec vocation de continuité

Le règlement du Congrès d'Etudes Basques, qui a eu lieu à Oñati en 1918, dit dans son premier article qu'un des objectives de cettte Assemblée fut promovoir la formation d'un organisme qui donnerait permanence au travail du Congrès et qui serait unificatrice et directrice de la renaissance de notre culture basque.

Suite à ce premier congrès naquit Eusko Ikaskuntza. Pendant les premières années, ce son les congrès qui ont articulé l'activité d'EI/SEB et qui ont apporté a la Société une notoriété internationale. L'important n'a pas été de créer une société d'études ethniques mais de créer une académie des sciences. La tradition veut que l'on organise un congrès tous les deux ans. La Société, consciente des nouvelles réalités dérivées de la Société de l'Information, a estimé oportun de dédier ce thème lors du XIVème Congrès, afin de réaliser une profonde réflexion en la matière, qui permettre d'inferer les conséquences qui se produiront dans tous les domaines d'activité et dans les différentes couches sociales. Cependant Eusko Ikaskuntza ne souhaite pas que ces journées d'études restent isolées. Elle souhaite, comme lors des congrès précédents, être l'instigatrice dans cette ligne de travail.

## Luis Gurrutxaga

*Informazioaren Gizartea*



Donostian jaioa, XIV. Kongresuko Batzorde Antolatzaileko lehendakaria Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko dekanoa izan da, bai eta II. Munduko Euskal Kongresuko idazkaria. Eusko Jaurlaritzan izan dituen karguen artean, Justizi Saileko Baliabide Material eta Antolaketarako zuzendaria edo Sistema eta Antolaketa Saileko zuzendariarenak aipatu daitezke. 1994etik EUSTAT-eko Antolaketa eta Estrategia burua da.

## Josu Aranberri

*Hezkuntza*



Zientzia Fisikoetan lizentziatua eta Informatikan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko informatika koordinatzailea dugu Aranberri. Beste hainbat betebehar izan ditu ere erakunde akademikoan, horien artean Irakaslego eta Akademi Antolakuntzarako errektoreordearena aipatu daitekeelarik. Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako zuzendaria izan zen bere egunean eta egun, urrutiko irakaskuntzarekin loturiko bi proiektu zuzentzen ditu.

## Pedro Martínez de Alegría

*Zerbitzuak*



Ekonomi Zientzi eta Enpresa Ikasketetan lizentziatua eta Nazioarteko Finantzei buruzko diplomaren jabea, Federacion de Cajas Vasco-Navarras delakoaren idazkari teknikoa da Martinez de Alegria. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kide dugu, bai eta Biharko Vida eta Basaide S.C. elkarteetako idazkaria. Bestalde, aholkulari lanak burutzen ditu Norbolsa eta Créditos Participativos izeneko elkarteetan.

## Jean-Michel Larrasket

*Lana*



Parisen sortua, Gestio Zientzietan doktoredutza burutu zuen bere egunean Jean-Michel Larrasketek. Gaur egun Pabe eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Baionako Institut Universitaire de Technologhie delakoaren irakaslea da Larrasket, bere lana irakaskuntzaz gain ikerketa arloan ere burutzen duelarik. Ikerlaria da ere CNRS-eko Graphos-Osasungintza laborategian. XIV. Kongresuan zuzentzen duen Saila "Lana enpresetan, administrazioan eta lanbide liberaletan" izenburupean aurkezten da.

## Mikel Agirregabiria

*Komunikabideak*



Euskal Irrati Telebistan kokatu beharra dago Mikel Agirregabiriaren izena. Izan ere, EITB-ko Heziketa Saileko zuzendaria da 1991etik. Aurreko urteetan hainbat kargu izan ditu bere gain Administrazio Publikoetan, Eusko Jaurlaritzako Bizkaiko Hezkuntza Berriztapeneko zuzendariarena, edo Kultura Saileko zientzia, teknologia eta informatika arloetako aholkulariarena, kasu. Irakaskuntzari dagokionez, Bilboko Irakasle Unibertsitari Eskolan Zientzia esperimentaletako didaktika irakasle titularra da.

## Juan Cruz Agirre

*Azpibatzorde teknikoa*



Aragon, Cantabria, Euskal Autonomia Erkidegoa, La Rioja eta Nafarroa hartzen dituen eremuko enpresa zuzendaria da Juan Cruz Agirre "Telefónica" Konpainian. Berari eta Mikel Orrantia "Telefónica"-ko bezero handi eta bezero berezien gerenteari dagozkie XIV. Kongresuko azpiegitura teknikoaren ardurak. Beraiekin batera, Aranberrik jorratu ditu lanak. Izan ere, edizio honetako konplexutasunak azpibatzorde tekniko baten osaketa eskatzen zuen, sei egoitzetako loturak behar den bezalakoak izateko.

# Nafarroako Ikastolen Elkartearekin hitzarturiko proiektuak, abian

Pasa den irailean Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Ikastolen Elkartearekin sinaturiko hitzarmenak bere lehenbiziko emaitzak izaten ari da. Izan ere, akordio horri jarraiki, bi beka deitu izan ziren elkarlaneko proiektu bana jorratzeko eta bi bazkidek ekin diete dagoeneko laguntza horien bitartez burutuko diren lanei.

Patxi Larrion dugu Nafarroako Ikastolen Ahozko Historia lantzeko deituriko beka eskuratu duen hautagaia. Historian lizentziatua dugu Larrion, bere doktoredutza tesirako proiektua Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkeztu zuelarik "Euskararen aldeko mugimenduak gerra ostekoan" izenburupean. Bere lan esperientzi gehiena irakaskuntza arloan kokatzen da eta egindako ikerketei dagokionez, Nafarraoako historiari buruzko hainbat lan argitaratu ditu.

Historian lizentziatua dugu ere Xabier Larrañaga, Euskal Herriko Unibertsitateak antolaturiko Artxibagintzaren inguruko Masterra burutu duelarik. Nafarroako Ikastolen Elkarteak bere Bulego Nagusian dituen dokumentaziofondoak katalogatzea da Larrañagaren betebeharra, horretarako hiru hilabeteko epea duelarik.

# EI/SEV llevará a la Feria de Durango sus novedades editoriales

Eusko Ikaskuntza acudirá un año más a la Feria del Libro y del Disco Vascos, donde tendrá un stand propio. El público podrá así acercarse a las últimas novedades editoriales de la Sociedad, entre las que cabe destacar la colección que recoge las obras de Antoine D'Abbadie, recopiladas por Patri Urkizu, o el último número de Ohienart-Cuadernos de Lengua y Literatura, que lleva por título "Gerra eta Literatura". Este volumen fue presentado en el Palacio de Miramar el pasado día 3 de noviembre. Podrá encontrarse también el noveno volumen de Ikastaria-Cuadernos de Educación ("Planificación y organización de la escuela plurilingüe"), presentado este mismo mes. La Feria permanecerá abierta entre los días 4 y 8 de diciembre.

# Euskal kantutegien hustuketa burutuko du Cristina Arriagak

Eusko Ikaskuntzak musikologo eta folkloristei zuzendurik sorturiko bekaren bitartez burutuko du Cristina Arriaga bazkideak hainbat euskal kantutegi ezagunen hustuketa. Informazio Zientzietan Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatua, musika arloan prestakuntza zabala du Arriagak. Izan ere, solfeoa, musikaren teoria, transposizioa eta akonpainamenduaren,



bai eta pedagia musikalaren inguruko goi-mailako tituluen jabe dugu. Pianoari dagokionez, erdi-mailako titulua eskuratu zuen bere egunean.

Piano, Musika Lengoaia eta Musikaren Historia irakasle izan da Bilboko Koral Elkarteko Kontserbatorioan eta Arratiako Musika Eskolan ere irakatsi du. Bere ikerketen artean, aipatu beharra dago Euskal Herrian XX. mendean erabilitako musikaren inguruko argitalpenei buruzkoa.

Hiru hilabetez arituko da lanean, Eusko Ikaskuntzak abian jarritako proiektu honen azken helburua datu-base bat prestatzea delarik.

# La institucionalización jurídica y política de Vasconia, a debate

La Sección de Derecho de Eusko IKaskuntza ha querido abordar la cuestión de la institucionalización jurídica y política de Vasconia desde la perspectiva de los Estados español y francés, así como de la Unión Europea, a través de unas Jornadas que se celebrarán los pròximos días 11 y 12 de diciembre en el hotel Abando de Bilbao.

Además del análisis en profundidad, también tendrá cabida en este programa el debate entre ponentes e invitados. De hecho, la jornada final consitirá en una mesa redonda, moderada por el catedrático de Historia del Derecho de la Universidad Pública de Navarra Gregorio Monreal, en la que participaràn representantes del PNV, PSE/EE, PP, HB, EA, EB, UA, UPN y CDN, y de partidos de Iparralde.

La apertura, el dìa 11, correrá a cargo del presidente de Eusko Ikaskuntza, Juan José Goiriena de Gandarias, y del director del Instituto Vasco de Administración Pública, Josu Erkoreka. José Manuel Castells (UPV/EHU), Xabier Iriondo (UPV/EHU) y Gurutz Jauregi (UPV/EHU) expondrán las tres ponencias iniciales y Gumersindo Trujillo (Universidad de La Laguna) dará una conferencia titulada "El Estado autonómico y el hecho diferencial". En el apartado de comunicaciones, intervendrán Javier Caño, Santiago Larrazabal, Iñaki Lasagabaster, Demetrio Loperena, Juan Porres y Martín Razkin.

# Beca para informático

Eusko Ikaskuntza convoca una beca dirigida a informáticos, de acuerdo con las bases que se detallan a continuación. Los interesados pueden presentar sus curriculums en cualquiera de las Oficinas de Eusko Ikaskuntza, antes del día 20 de diciembre:

### Objeto

La beca está destinada al desarrollo de tareas en la Mediateka de Eusko Ikaskuntza en San Sebastián.

### Candidatos

Los aspirantes deberán ser socios de Eusko Ikaskuntza o solicitar su ingreso en la Sociedad en el momento de pedir la beca. Se precisan informáticos con formación en edición HTML y dominio del programa Page Mille. Deberán dominar, igualmente, el euskara y el inglés.

### Duración e importe

El trabajo se prolongará por espacio de un año y el importe bruto de la ayuda ascenderá a 1.000.000 pesetas.

### Plazo

El plazo de presentación de solicitudes termina el próximo día 20 de diciembre.

# EI/SEV a reuni à Bilbao des experts en Physique et Chimie

Eusko Ikaskuntza a réuni les 20 et 21 novembre d'importans experts lors du colloque organisé par la Section Sciences Phisiques et Mathématiques. Antton Erkoreka, vice-président de la Société en Biscaye a inauguré le programme, qui a commencé par une conférence du Professeur de Physique Théorique de l'Université de Salamanca, Jesús Martín, à propos de "L'impondérabilité d'Einstein et l'illustre Marconi".

### Méthodes algébriques

Ensuite Manuel Castellet, Professeur de Mathématiques à l'Université Autonome de Barcelone a communiqué sur les "Méthodes algébriques en géométrie. De Socrate au génie génetique". Le 21 María Carmen de la Torre, Professeur de diététique à l'Université Autonome de Barcelone a parlé sur "Les critères scientifiques, salutaires du vin".

Francisco García, Professeur de biochimie et de biologie moléculaire à l'Université Polytechnique de Madrid a exposé son avis à propos de "La troisième révolutin verte".

C'est Félix Goñi, directeur de Politique Scientique au Gouvernement Basque qui a clôturé cette troisième édition.



**Convenio con Zambrana.** *El vicepresidente por Alava de Eusko Ikaskuntza, Manuel de Uriarte, y la alcaldesa de Zambrana, Justina Angulo, rubricaron el pasado día 27 de octubre el convenio por el que EI/SEV y el Ayuntamiento de la localidad se comprometen a mantener lazos constantes de colaboración y a organizar a lo largo del año diversas actividades conjuntas.*

# Egutegia

## Calendario Agenda

*Hasta el 30 de noviembre*
Comunicaciones para el III Simposio sobre Bilbao

La tercera edición de las jornadas tendrá lugar en enero de 1998 y llevará por título "Bilbao una ciudad musical". El plazo para la presentación de comunicaciones libres, que deberán tener una extensión de entre 10 y 20 minutos de lectura oral, finaliza el próximo 30 de noviembre. Los textos seleccionados, como las ponencias, serán publicados en el anuario Bidebarrieta.

*Hasta el 30 de noviembre*
Comunicaciones sobre Arte Vasco

Los investigadores que propusieron comunicaciones para las II Jornadas de Arte Vasco deberán presentar sus trabajos antes del 30 de noviembre en cualquiera de las Oficinas de Eusko Ikaskuntza. Centradas en la revisión del arte renacentista, las sesiones se desarrollarán en marzo de 1998 en San Sebastián.

*Día 12 de diciembre, en Pamplona*
Junta Permanente

La Junta Permanente en pleno de Eusko Ikaskuntza celebrará su próxima reunión ordinaria el viernes 12 de diciembre, en Pamplona. Será el Palacio de Navarra el que acoja la sesión, que comenzará a las 17.00 horas de la tarde.

# Euskal paisaia Oxforden

Gure herrian, Europako beste askotan ez bezala, paisaiari buruzko goi mailako ikasketarik ez dago. Hau horrela bada ere, zorionez euskal unibertsitateetan paisaian aritzen den ikertzaile mordoxka bat bada, eta beraien lanari esker, besteak beste, gure unibertsitateek euskal paisaiei buruzko ikerketa eta ikasketak bultzatu ahal izango dituzte oso urrun beharko ez lukeen egun batetan. Azken hogei urteetan zehar ingurugiroa eta paisai naturalei buruzko gaiek garrantzi geroz eta handiagoa lortu dute gizartean, zientzietan, eta baita politikan ere. Honen ondorioz, ingurugiroari buruzko eztabaida eta kezkak gizartean finkatuz joan dira. Hasieran ikertzaileen eremuari zegozkien hogei durotako hitzak gutxika-gutxika eguneroko bizitzan hedatuz joan dira, eta horren ondorioz gizakion ekintzek ingurunean duten eragin negatiboaz jabetzen gara, garapena eta baliabide naturalen kontserbazioa gatazkan sartzen direla frogatuz. Gaur egun guztiok dugu ingurugiroari buruzko kontzeptu bat buruan, berau pertsonaz pertsona oso aldakorra den arren. Beraz, azken urteetan egindako ikerketek gizakiok ingurunean dugun eragina mesedegarri izatetik urrun dagoela ondorioztatu dute. Izan ere, hasiera batetan oso zabala zen kontzeptua, ingurugiroarena alegia, urteen buruan murriztuz joan da, eta gaur egun ingurugiroari buruzko ikerketa, araudi, argitalpen eta komunikabideetako saioek orohar gizakiak ingurunean duen inpaktu negatibo hau azpimarratzen dute. Hori dela eta, "ingurugiro" hitzak nolabaiteko esanahi negatiboa hartu du, alde batetik gizarte kontsumatzaileak horrela iraun ahal izan dezan eman beharreko ordaina da, eta bestetik gure ekintzek sortutako okerrak gogorazten dizkigu.



Miren Askasibar

*es profesora visitante en la Universidad de Oxford, en virtud del convenio fir - mado con la institución académica por Eusko Ikaskuntza y el Gobierno Vasco.*

### Kontzeptu berria

Guzti honen ondoan, paisaia kontzeptu berriagoa da, eta ingurugiroarena ez bezala zentzu ezezkorrez "kutsatu" gabea. Hamarkada honetan zehar paisai kulturalek garrantzia irabazi dute, agian gizakiok ingurunean dugun eragin mesedegarriaren adibide batzuk eskaini nahian.

> *Paisaia kontzeptu berriagoa da, eta ingurugiroarena ez bezala zentzu ezezkorrez "kutsatu" gabea*

Honela, gaur egun gizakion eskuz, eta gehienbat nekazaritza eta abeltzaintzaren bidez mendeetan zehar eraldaturiko paisaiak balioztatzen ditugu. Horregatik hainbat proiekturi eman zaio hasiera, bai nazioarteko mailan, baita herri ezberdinetan ere, paisai kulturalak aztertu eta babesteko asmoz.Aldi berean, EE-ren sendotzeak paisaiak eskualde mailan eta maila lokalean nortasuna sortu eta mantentzeko prozesuan duen eginkizunari buruzko eztabaida ekarri du, batasuna eta uniformetasuna nahasteak ekar lezakeen paisaien dibertsitatea galtzeko arriskuarekin batera.

### Oxfordeko esperientzia

Paisaia da St. Antony's College-era ekarri nauen gaia, Urdaibaiko Biosfera Erreserban baso-plangintzan paisaiari buruzko irizpideak sartzeko eman litezkeen urratsak aztertzea hain zuzen ere. Honetarako, Oxfordeko Unibertsitateko Ingurugiro Aldaketako Sailarekin harremanetan nago, eta Oxford Brookes Unibertsitateko Lurralde Antolaketa Eskolarekin harremanetan jarraitzen dut ere. Horretaz gain, unibertsitate honetan Visiting Fellow izateak eskura jartzen dizkidan hainbat ekintzetan hartzen dut parte. Aldi berean, Unibertsitateak abenduan Mendiko Eskualdeetako Gizarte eta Ingurugiroko Aldaketei buruz antolatuko duen Biltzar Europearrean parte hartuko dut Gipuzkoako paisaiaren eboluzioari buruzko lan batekin.

Azken batetan, Eusko Ikaskuntzak eskainitako aukera honetan gauza bakarra somatzen dut faltan: berrogeita zortzi ordutako egunak, hiri eta Unibertsitate honetan egin nahi nituzkeen gauza guztiak egin ahal izateko.

## SCIENCES

# Le délai d'inscription est ouvert pour le III Colloque sur la Projectique

Pour participer au IIIéme colloque sur la projectique on peut s'inscrire jusqu'au 6 décembre dans tous les bureaux de la Socété d'Etudes Basques. Ëtant donné le succès obtenu lors des deux premières éditions, Eusko Ikaskuntza et la Société Européenne de Projectique organisent une troisième édition.

L'objectif des journées européennes de projectique est de fonder un forum permanent de réflexion scientifique autour de la projectique comme mode de connaissance, d'organisation et d'action face à la complexité des systèmes sociaux.

### Inscriptions

Les sessions auront lieu respectivement, les 11 et 12 décembre à l'Institut Universitaire de Technologie au Château Neuf à Bayonne et au Palais Miramar á Saint-Sébastien.

Les personnes qui désirent s'inscrire doivent envoyer leus bulletin d'inscription au sécretariat de l'Institut Universitaire de Technologhie (3 avenue Jean Darrigrand 64115 Bayonne) aù par ailleurs on peut s'informer sur les modalités d'inscription.

Le programme commence le 11 décembre à 8 h 30. Durant la matinée il y aura divers séminaires de travail et à 11h30 Jean Pierre Boutinet (Institut de Psychologie et Sociologie Appliquées) donnera une conférence dont le titre est "Programme, problème, projet: convergences méthodologiques et ruptures".

L'après midi, le schéma de travail est similaire. Nimal Jayaratnak (Université Sheffield Hallam) clôturera ce programme par une table ronde.

### Saint-Sébastien

A Saint-Sébastien, Iñaki Ibarra (Hobest Consultants) donnera une conférence sur "Les nouvelles formes d'organisation et pouvoir dnas l'entreprise" ensuite Jean Pierre Claveranne (Université Jean Moulin de Lyon 3) dirigera une table ronde. Robert Prost (Ecole d'Architecture Paris-Tolbiac) clôturera ces deux journées.

## EI-ko kideen liburuak

**"El yacimiento Epipaleolítico de Kukuma". Amelia Baldeón eta Eduardo Berganza.**

Araiako Kukuma kobazuloan 1978 eta 1981 urte artean egin ziren indusketa arkeologikoetatik datu interesgarri asko atera dituzte memoria honen egileek. Kukumako aztarnategia material ezberdinez eginiko tresnek osatzen dute, eta horien bidez epipaleolitiko garaiko ehiztari eta fruitu-biltzaileen bizimodua ezagutu ahal izan dute ikerleek. Kukuma arabar Lautadan kokatzen da, eta ehizarako puntu estrategiko bezala erabili zuten bertako biztanleek Kristo aurreko VIII eta V milurtekoen artean.



**"Izaro. Historia y tradiciones". Anton Erkoreka**

Bizkaiako kostaldean, Matxitxako badian dagoen uharteari eskaini dio Anton Erkorekak bere azken liburua. Izaro, egilearen hitzetan, "gure kostaldeko irlarik bikainena da, handiena, ederrena eta historian zehar tradizio gehien pilatu dituena". Liburuak Izaroko irlaren historia aztertzen du, Ertaroko ustezko eremutarrak iritsi eta 1422. urtean frantziskotarrek monastegia eraiki zutenetik gure garaietaraino. Bestalde, irlaren inguruan sortu diren istorio eta kondairak ere biltzen ditu Erkorekak. Azkenik, arteak, literaturak eta Urdaibaiko deskribapenak azken ukitua ematen diote Izaro uhartearen erretratua den liburu honi.




ASMOZ TA JAKITEZ

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Tlfnoa.: (943) 310855. Faxa: (943) 213956. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara: **Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: eisev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. Ordutegia: 11.00-14.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. Ordutegia: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. Ordutegia: 9.00-12.00.